ANIMALIEN GAIXOTASUNAK DETEKTATZEKO ELISA ZEHAZTAPENAK KONTRATATZEKO LIZITAZIOA, PROZEDURA IREKI BIDEZKOA, ARAUTUKO DUEN KLAUSULA TEKNIKOEN AGIRIA (Erreferentzia: NK03/21)

Aurrekariak:

ELISA (Enzyme-linked Immunosorbent Assay) metodoaren bidez animalien gaixotasunak diagnostikatzeko beharrezkoak diren erreaktiboak eskuratzeko eskatu da.

NEIKERek ELISA teknika erabiltzen du, mundu osoko animalia-osasunaren arloko ikerketa-eta zerbitzu-laborategietan gehien erabiltzen dena delako, aldakortasun handia eta errendimendu ona baititu. Ildo horretan, ELISA teknika egokia da bakterioek, birusek eta prioiek sortutako gaixotasun ugariren antigorputzak eta antigenoak detektatzeko hainbat laginetan, kasu bakoitzaren arabera (odol-seruma eta -plasma, odol osoa, belarri-hegaleko kartilagoa, esne-seruma, entzefaloak edo eginkariak).

Abereei eragin diezaieketen prozesu garrantzitsuenen artean hauek daude: IBR, BVD eta Schmallenberg birusek eragindako infekzioak, paratuberkulosia, entzefalopatia espongiformeak eta errotabirusek, koronabirusek eta *Escherichia coli*k eragindako jaioberrien beherakoak. Kasu guztietan, erreaktibo oso kontrastatuak, proba diagnostikoaren sentikortasun- eta espezifikotasun-balio egokiak dituztenak eta NEIKERek egiten dituen diagnostiko-jardueretan zein I+Gkoetan erabilera egokia ahalbidetuko dutenak, eskuratu nahi dira.

Beraz, produktu hauek eskaini beharko dituzte:

Gutxieneko betekizunak:

Kit horiek erakunde eskudunak erregistratuta egongo dira, bai zerbitzu-erabilera emateko, bai I+Gko erabilera emateko.

Enpresa hornitzaileak NEIKERen eskura jarriko ditu proba diagnostikoaren sentikortasunari, proba diagnostikoaren espezifikotasunari eta detektagarritasunari dagokienez kitaren egokitasuna egiaztatzeko egindako baliozkotzeen emaitzak.

Kontsumoak:

Jarraian, aurreko urteetako kontsumo zenbatetsiak adieraziko dira

Licitación
ELISA antigénico BSE-scrapie
ELISA antigénico rotavirus-coronavirus-K99 bovino
ELISA bloqueo anticuerpos gB virus IBR
ELISA bloqueo anticuerpos gE virus IBR

ELISA bloqueo BVDV anticuerpos anti p80
ELISA BVDV antígeno ERNS
ELISA indirecto Fiebre Q
ELISA indirecto PTBC cribado
ELISA indirecto virus Schmallenberg
ELISA de bloqueo de Leucosis Bovina
ELISA indirecto Leucosis Bovina

Licitación	Nº kits	Nº placas/kit	Determ/pl	TtDeterm	IMPORTE KITS	Importe	Precio/Dt
ELISA antigénico BSE-scrapie	5	5	96	2.400	1.399,44	6.997,20	2,92
ELISA indirecto virus Schmallenberg	2	2	96	384	461,83	923,65	2,41
ELISA bloqueo anticuerpos gB virus IBR	4	5	96	1.920	361,27	1.445,07	0,75
ELISA bloqueo anticuerpos gE virus IBR	7	5	96	3.360	580,94	4.066,61	1,21
ELISA bloqueo BVDV anticuerpos anti p80	10	5	96	4.800	609,64	6.096,38	1,27
ELISA antigénico rotavirus-coronavirus-K99 bovino	8	1	96	768	229,93	1.839,42	2,4
ELISA BVDV antígeno ERNS	17	5	96	8.160	925,75	15.737,70	1,93
ELISA indirecto PTBC cribado	15	5	96	7.200	440,29	6.604,42	0,92
ELISA indirecto Fiebre Q	10	2	96	1.920	496,74	4.967,42	2,59
ELISA de bloqueo de Leucosis Bovina	1	10	96	960	1.142,78	1.142,78	1,19
ELISA indirecto Leucosis Bovina	1	5	96	480	1.105,96	1.105,96	2,3
					1 año sin iva	50.926,61	61.621,20
					2 años sin iva	101.853,22	123.242,40
					4 años sin iva	203.706,44	246.484,79

Kontsumo horiek orientagarriak dira eta ez dira derrigorrezkoak izango NEIKERentzat. Kontratua gauzatu bitartean, NEIKERek unitate gutxiago edo gehiago kontsumitu ahal izango ditu; hori guztia Karatularen 6.2 atalean ezarritakoa errespetatuz.Adjudikaziodunak kontsumoen aldizkako erregistroa eman beharko dio NEIKERi. NEIKERek erreaktiboen kontsumoaren berri izateko urtean behin gutxienez.

Era berean, kontratua amaitzean, kontratuak iraun bitartean egindako guztizko kontsumoei buruzko datuak eman beharko dizkio adjudikaziodunak NEIKERi.

Segurtasun-fitxak

Adjudikaziodunak eskaintzen diren produktuen segurtasun-fitxak eman beharko ditu eta fitxa horietan egiten den aldaketa ororen berri eman beharko du.

Berdintasuna:

Enpresan hizkera inklusiboa eta berdintasunezkoa erabiliko da. Horren arabera, kontratua betetzeko aldian sortzen den dokumentazio, publizitate, irudi eta material guztietan sexismorik gabeko hizkera erabiliko da, emakumeen kontrako bereizkeria edo estereotipo sexistak bultzatzen dituzten irudiak saihestuko dira, eta berdintasunaren aldeko irudiak sustatuko dira, presentzia orekatua, aniztasuna, erantzukidetasuna eta rolen eta genero-identitateen pluraltasuna bultzatzen direla